

GU KAZETARI!



1. JARDUERA:

Gutxienez 53 dira Himalayan izan den lurrikaran hildakoak

Lurrikara 6,9 gradukoa izan da eta Indian, Nepalen eta Tibeten eragin ditu hildakoak. Egunak aurrera egin ahala hildakoen kopuruak gora egitea espero da, larrialdi zerbitzuek lanak baitituzte zenbait herrixketara iristeko.



Gaur goizaldean 6,9 graduko lurrikara izan da Himalayan eta gutxienez 53 lagun hil dira horren eraginez. Hildakoak Indian, Nepalen eta Tibeten izan dira. Gehienak Indiako Sikkim estatuan hil dira, 31 guztira, Indiako Poliziak jakinarazi duenez. Biar estatuan, gainera, beste bi hil dira, eta Bengalari, beste sei.

Nepalen zazpi lagun hil dira, horietako hiru Erresuma Batuen enbaxadaren horma bat erori eta azpian auto bat eta moto bat harrapatu dituenen. Tibeten beste zazpi lagun hil dira, Xinhua Txinakok albiste agentzi ofizialaren arabera.

Larrialdietako zerbitzuak Himalayako herrixka isolatuenetara iristen saiatzen ari dira, baina euriak lana zailtzen die. Gainera, lainoaren eraginez helikopteroek ezin dute horietara iritsi, eta gaur egunak aurrera egin ahala hildakoak gehiago izango dira.

Himalayako presidentek prentsaurrea emango du bihar eguerdian eta hartuko diren neurriak zehaztuko ditu.

1.- Testuan markatu Titulua, azpтитulua eta albistearen gorputza, bestelakoak.

2.- Testua objektiboa ala subjektiboa al da? Zergatik?

3.- Albisteetan erabiltzen diren aditzak lehenaldi burutua, orainaldia eta geroaldia izaten dira. Atera adibideak taula osatzeko:

ORAINALDIA	
ORAINALDI BURUTUA	
GEROALDIA	

4.- Daturik garrantzitsuenak bildu:

a) What? zer gertatu da?

b) Who? Nor?

c) Where? Non?

d) When? Noiz?

e) Why? Zergatik?

3. JARDUERA: TITULUA AUKERATZEN

Albistegietan eta egunkarietan egunero irakurri zein entzuten ditugun albiste askok nahigaberen baten berri ematen digute, horra hor suteak, istripuak, krisia eta gerrak...

Zeintzuk dira entzun nahi zenituzketen albisteen tituluak? Seguru egunerokoak baino alaiagoak eta baikorragoak izango lirakeela; bada, utzi zuen irudimenari hegan egiten eta asmatu biharko egunkarian irakurri nahi zenituzketenak! Hemen adibide batzuk dituzue

- 1.- Eretza Berriko 4. DBHkoek dohainik emango dituzte pintxoak jolasorduan.
- 2.- Bulling-a desagertu da eskoletatik.
- 3.- DBHn ezin izango da suspentsorik jarri.
- 4.-
- 5.-
- 6.-
- 7.-
- 8.-
- 9.-
- 10.-

GURE ALBISTERAKO TITULUA

4. JARDUERA: albisteak planifikatu egiten dugu

TITULUA

AZPITITULUA

ALBISTEAREN GORPUTZA

TITULUA: Daturik garrantzitsuenak biltzen ditu

AZPITITULUA: Datuak errepikatzen ditu eta zabaltzen ditu.

GORPUTZA: Bestelako informazio osagarria

GOGORATU 5 W-ak!!! What? Who? Where? When? Why?

5.- JARDUERA . AUTOZUZENKETA

Albistea idatzi ondoren birpasatu taula honi jarraituta

	BAI	EZ	Hobetzeko
• Gaurkotasuna du?			
• Irakurlearen interesa piztuko du?			
• Objektiboa da?			
• Titulua, azpitulua eta gorputza ageri dira?			
• Titulua, azpitulua eta gorputza tipografikoki ondo bereizten dira?			
• 5 W-ak erantzuten ditu			
• Gorputza paragrafoka antolatuta dago?			
• Ortografia zuzena da?			